## UDALEKO OSOKO BILKURAREN OHIKO BILERA

**2018ko uztailaren 27a**

Lesakako Herriko Etxeko Bilera Aretoan, bi mila eta hemezortzigarren urteko uztailaren 27an, ortzirala, ilunabarreko zortzietan, udaleko Osoko Bilkura bildu da, ohiko bileran eta lehenengo deialdian, Jose Luis Echegaray Andueza alkate jaunaren lehendakaritzapean eta honako zinegotzi hauek etorri direla: Iban de Prado Etxepeteleku, Esteban Irazoqui Irazoqui, José María Portu Ochoteco, Esteban Echeveste Apezteguía, Maider Arrieta Tapia, Lorea Flores Compains, Severiano Txoperena Matxikote eta Mattin Etxabide Gartzia jaun-andreak.

Ez dira agertu María Victoria Gortari Aldave eta Oier Iantzi Ordoki zinegotzi jaun-andreak, eta ez etorri izana justifikatu dute.

Idazkari lanetan, Andoni Esparza Leibar jauna ari da, udaleko idazkaria.

2015eko ekainaren 19ko Osoko Bilkuran erabakitakoarekin bat, bilkura guziaren soinu-grabaketa eginen da, geroago Udalaren web orrian zintzilikatzeko.

Alkate jaunaren aginduz, bilkura hasi da eta, deialdiari jarraituz, honako gai hauei buruz aritu dira:

## SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DEL AYUNTAMIENTO

**27 de julio de 2018**

En el Ayuntamiento de la Villa de Lesaka, siendo las veinte horas del viernes 27 de julio del año dos mil dieciocho, se reúne, en sesión ordinaria y a primera convocatoria, el Pleno municipal, presidido por el señor alcalde don José Luis Echegaray Andueza y con la asistencia de los siguientes concejales: don Iban de Prado Etxepeteleku, don Esteban Irazoqui Irazoqui, don José María Portu Ochoteco, don Esteban Echeveste Apezteguía, doña Maider Arrieta Tapia, doña Lorea Flores Compains, don Severiano Txoperena Matxikote y don Mattin Etxabide Gartzia.

No acuden, habiendo excusado su inasistencia, los concejales doña María Victoria Gortari Aldave y don Oier Iantzi Ordoki.

Actúa como secretario, el de la Corporación, don Andoni Esparza Leibar.

En cumplimiento de lo acordado por el Pleno del Ayuntamiento con fecha 19 de junio de 2015, se realizará una grabación de sonido de la totalidad de la sesión, con el fin de colgarla posteriormente en la página web municipal.

Por disposición del señor alcalde se da comienzo a la sesión en la que, conforme a la convocatoria, son tratados los siguientes asuntos:

**1 – AZKEN BILKURARI DAGOKION AKTAREN ONESPENA**

Osoko Bilkurak, aho batez, azken bilkurako akta onartu du, 2018ko ekainaren 15ekoa.

**1 – APROBACIÓN DEL ACTA CORRESPONDIENTE A LA ÚLTIMA SESIÓN**

El Pleno aprueba por unanimidad el acta de la última sesión, celebrada el día 15 de junio de 2018.

**2 – TANTIRUMAIRU IKASTOLAREN HIRI-JARDUKETAKO PLAN BEREZIAREN BEHIN BETIKO ONESPENA**

Tantirumairu ikastola Arretxea kaleko 13. zenbakian dago, finka katastroko 3. poligonoko 109. partzela delarik. Tantirumairu Kultur Elkartea da erabilera dotazionaleko eraikin berriaren eraikuntza sustatzen duena, 912,55 m.2 eraikitako azalera izanen duena.

2018ko urtarrilaren 3an jaso zen (Udaleko Erregistro Orokorrean 15. sarrera) Hiri-Jarduketako Plan Berezia (HJPB), eta Jabier Lekuona arkitekto jaunak egin du. Beranduago, eta Herritarren Parte-Hartze Planari dagokion bilera publikoa ospatu ondoren, urtarrilaren 11an, hilabete horretako 19an (Erregistroko 166. Sarrera), prozesu hau egin zela erakusten duen dokumentu berria aurkeztu zuen.

2018ko apirilaren 26ko Alkatetzaren 191/2018 ebazpenak hasierako onarpena eman zion HJPB-ari.

Abenduaren 20ko, Lurraldearen antolamendua eta Hirigintzari buruzko, 35/2002 Foru Legearen 74.1.a) artikuluak ezarritakoari

**2 - APROBACIÓN DEFINITIVA DEL PLAN ESPECIAL DE ACTUACIÓN URBANA DE LA IKASTOLA TANTIRUMAIRU**

La Ikastola Tantirumairu está situada en la calle Arretxea nº 13, correspondiendo la finca a la parcela 109 del polígono 3 del catastro. La Asociación Cultural Tantirumairu Kultur Elkartea promueve la construcción de un nuevo edificio de uso dotacional, que contará con una superficie de 912,55 m.2. construidos.

El Plan Especial de Actuación Urbana fue aportado con fecha 3 de enero de 2018 (entrada nº 15 en el Registro General del Ayuntamiento) y ha sido redactado por el arquitecto don Jabier Lekuona. Posteriormente y tras la celebración de la reunión pública correspondiente al Plan de Participación Ciudadana, el 11 de enero, el día 19 de ese mes (entrada nº 166 en el Registro), aportó un nuevo documento donde queda reflejada la realización de ese proceso.

La Resolución de la Alcaldía nº 191/2018, de 26 de abril, aprobó inicialmente el citado P.E.A.U.

Conforme a lo dispuesto por el artículo 74.1.a) de la Ley Foral 35/2002, de 20 de diciembre, de Ordenación del Territorio y

jarraikiz, espedientea jendaurrean ikusgai egon da hilabetez honako toki hauetan iragarritako ediktuen bidez: maiatzaren 22an, *Diario de Navarra* eta *Diario de Noticias* egunkarietan, eta 100. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, 2018ko maiatzaren 25ekoan, epe horretan alegaziorik aurkeztu ez delarik.

Hori guztia aztertu ondotik, Osoko Bilkurak, kide guzien aho bateko botoarekin, honako hau erabaki du:

1.- Behin betikoz onartzea Hiri-Jarduketa Bereziko Plana, Tantirumairu ikastolan eraikin dotazionala eraikitzeko (166. Sarrera, 2018ko ilbeltzaren 19koa Udaleko Erregistro Orokorrean). Dokumentua Jabier Lekuona arkiteko jaunak idatzi du.

2.- H.J.P.B.-ren ale bat bidaltzea Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Departamentuari, emandako informeen eta Herritarren Parte-Hartze Planaren tramitazioari buruzko kopia konpultsatuekin batera.

3.- Behin betiko onespenaren iragarkia baita H.J.P.B bera, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, eta akordio hau sustatzaileei jakinaraztea.

**3 – U.A. 27RAKO HIRI JARDUKETAKO PLAN BEREZIAREN BEHIN BETIKO ONESPENA (BITTIRIA KALEKO 32. ZK.)**

Jarduketak Bittiria kaleko 32 zenbakiko orubeari eragiten dio, eta katastroko 2. poligonoko

Urbanismo, el expediente ha sido sometido a información pública, durante un mes, mediante edictos publicados en el Diario de Navarra y Diario de Noticias el día 22 de mayo y en el Boletín Oficial de Navarra nº 100, de 25 de mayo de 2018, sin que durante ese periodo se haya presentado alegación alguna.

A la vista de todo ello el Pleno, con el voto unánime de sus miembros, acuerda:

1º) Aprobar definitivamente el Plan Especial de Actuación Urbana para la construcción de un edificio dotacional en la ikastola Tantirumairu (entrada nº 166, de 19/01/2018 en el Registro General del Ayuntamiento). El documento está redactado por el arquitecto don Jabier Lekuona.

2º) Enviar al Departamento de Desarrollo Rural, Medio Ambiente y Administración Local del Gobierno de Navarra un ejemplar del P.E.A.U., junto con fotocopias compulsadas de los informes emitidos y de la tramitación relativa al Plan de Participación Ciudadana.

3º) Que se publique la aprobación definitiva, así como el contenido del P.E.A.U. en el Boletín Oficial de Navarra, notificando el presente acuerdo a la promotora.

**3 - APROBACIÓN DEFINITIVA DEL PLAN ESPECIAL DE ACTUACIÓN URBANA DE LA U.A. 27 (C/ BITTIRIA Nº 32)**

La actuación afecta al solar situado en la calle Bittiria nº 32 y corresponde a la parcela 7 del

7 lurzatiari dagokio. Lehen etxebizitza bat zegoen, udal baimenarekin eraitsia izan zena.

Irarbe S.L.-k 5 etxebizitza izango dituen eraikinaren eraikuntza sustatzen du (Licobviv/2015/5 espedientea). Horretarako, 2016ko irailaren 7an Herri Jarduketako Plan Berezia (H.J.P.B) aurkeztu zuen, Ramón Azurmendi Goenaga eta Iñaki Iragorri Arbelaiz arkitektuek idatzia.

Espedientean Kantauriko Ur Konfederazioak emandako txostena gordeta dago (2017/03/27ko 2017/963 zk sarrera).

Sustatzaileak "Hiritarren Parte Hartzeko plana, Bideragarritasun Memoria eta Jasangarritasun Ekonomikoa"-ri buruzko gehigarria ere eman zuen, aipatutako bi arkitektuek sinatua (2017/05/22ko 2017/1619 zk. sarrera). 2017ko ekainaren 28an bilera publiko bat egin zen, eta ez zen ez alegaziorik ez ekarpenik aurkeztu.

2017ko uztailaren 6ko 2017/271 zenbakidun Alkatetzako ebazpenak, H.J.P.B.-ri hasierako onespena eman zion.

Abenduaren 20ko, Lurraldearen antolamendua eta Hirigintzari buruzko, 35/2002 Foru Legearen 74.1.a) artikuluak ezarritakoari jarraikiz, espedientea jendaurrean ikusgai egon da hilabetez honako toki hauetan iragarritako ediktuen bidez: uztailaren 18an, *Diario de Navarra* eta *Diario de Noticias* egunkarietan, eta 144. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, uztailaren 27koa. Epe horretan ez zen inolako alegaziorik aurkeztu.

polígono 2 del catastro. Anteriormente había ahí una vivienda que fue demolida con autorización municipal.

Irarbe S.L. promueve la construcción de un edificio que contará con 5 viviendas (expediente Licobviv/2015/5). Para ello, presentó con fecha 7 de septiembre de 2016 un Plan Especial de Actuación Urbana (P.E.A.U.), redactado por los arquitectos Ramón Azurmendi Goenaga e Iñaki Iragorri Arbelaiz.

Obra en el expediente el informe emitido por la Confederación Hidrográfica del Cantábrico (entrada nº 963/2017, de 27/03/2017).

La promotora aportó igualmente un anejo relativo al "Plan de participación ciudadana. Memoria de viabilidad y sostenibilidad económica", que está suscrito por los dos arquitectos citados (entrada nº 1.619/2017, de 22/05/2017). Al efecto se realizó una reunión pública el día 28 de junio de 2017, sin que fuera formulada ninguna alegación o aportación.

La Resolución de la Alcaldía nº 271/2017, de 6 de julio de 2017, aprobó inicialmente el P.E.A.U.

Conforme a lo dispuesto por el artículo 74.1.a) de la Ley Foral 35/2002, de 20 de diciembre, de Ordenación del Territorio y Urbanismo, el expediente fue sometido a información pública, durante un mes, mediante edictos publicados en el Diario de Navarra y Diario de Noticias el día 18 de julio y en el Boletín Oficial de Navarra nº 144, de 27de julio, sin que durante ese periodo se presentara alegación alguna.

Udaleko Osoko Bilkurak, 2016ko urriaren 28an izandako bilkuran, adierazi zuen "...Plan Berezia behin betikoz onartu dadin, aurretik hirigintza hitzarmena sinatu beharko da". Horri dagokionez, esan beharra dago 2018ko maiatzaren 18an ospatutako saioan behin betikoz onartu ondoren, Hitzarmena uztailaren 3an sinatua izan dela lursaiaren jabeekin: Juan Picabea Alzugaray eta Juan Antonio Pikabea Zozaia jaunak. Aipatutako dokumentua Hirigintza Hitzarmenen Erregistroan inskribatua izan da.

El Pleno del Ayuntamiento, en sesión celebrada el día 28 de octubre de 2016, señaló que "....para que el Plan Especial pueda ser definitivamente aprobado, antes deberá estar firmado el convenio urbanístico". Al respecto hay que indicar que, tras su aprobación definitiva en sesión plenaria celebrada el día 18 de mayo de 2018, el Convenio ha sido suscrito el día 3 de julio, con los propietarios de la finca, don Juan Picabea Alzugaray y don Juan Antonio Pikabea Zozaia. El citado documenta ha sido ya inscrito en el Registro de Convenios Urbanísticos.

Hori guztia aztertu ondotik, Osoko Bilkurak, kide guzien aho bateko botoarekin, honako hau erabaki du:

A la vista de todo ello, el Pleno, con el voto unánime de sus miembros, acuerda:

1.- Behin betikoz onartzea U.A. 27 Hiri Jarduketaren Hiri-Jarduketa Bereziko Plana, Bittiria Kaleko 32an kokatutako orubeari dagokiona. Dokumentua Ramón Azurmendi eta Íñigo Iragorri arkitektu jaunek idatzia izan da (2016/09/07ko 2016/2.394 zk. sarrera, Udaleko Erregistro Orokorrean).

1º) Aprobar definitivamente el Plan Especial de Actuación Urbana de la U.A. 27, correspondiente al solar situado en el nº 32 de la calle Bittiria. El documento ha sido redactado por los arquitectos don Ramón Azurmendi y don Íñigo Iragorri (entrada nº 2.394/2016, de fecha 07/09/2016, en el Registro General del Ayuntamiento).

2.- H.J.P.B.-ren ale bat bidaltzea Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Departamentuari, emandako informeen eta Herritarren Parte Hartze Planaren tramitazioari buruzko kopia konpultsatuekin batera.

2º) Enviar al Departamento de Desarrollo Rural, Medio Ambiente y Administración Local del Gobierno de Navarra un ejemplar del P.E.A.U., junto con fotocopias compulsadas de los informes emitidos y de la tramitación relativa al Plan de Participación Ciudadana.

3.- Behin betiko onespena eta H.J.P.B-ren edukia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, eta akordio hau Irarbe S.L.-ri eta orubearen jabeei jakinaraztea.

3º) Que se publique la aprobación definitiva así como el contenido del P.E.A.U. en el Boletín Oficial de Navarra, notificando el presente acuerdo a Irarbe S.L. y a los propietarios de la finca.

4.- Sustatzaileari jakinarazi exekuzio proiektua idazteko, Kantauriko Ur Konfederazioak adierazitakoa kontuan izan beharko duela.

4º) Comunicar a la promotora que, para redactar el proyecto de ejecución, deberá tener en cuenta lo indicado por la Confederación Hidrográfica del Cantábrico.

5.- Hitzarmenaren 3. Estipulazioan ezarritakoari jarraituz, finken normalizazioari ekingo zaio.

5º) Que se procede a la realizar la normalización de fincas, conforme a lo establecido por la estipulación tercera del Convenio.

**4 – BALORAZIO PONENTZIA BERRAZTERTZEA**

**4 – REVISIÓN DE LA PONENCIA DE VALORACIÓN**

Zinegotzien aho bateko botoarekin, Osoko Bilkurak honako akordioak hartu ditu:

1.- Udal katastroaren balorazio ponentziaren errebisioari ekitea.

2.- Ebazpen hau Nafarroako Gobernuaren Lur-Ondasunen Zerbitzuari eta Tracasa-ri jakinaraztea.

Con el voto unánime de sus concejales, el Pleno adopta los siguientes acuerdos:

1º) Que se proceda a la revisión de la ponencia de valoración del catastro municipal.

2º) Que se notifique la presente Resolución al Servicio de Riqueza Territorial del Gobierno de Navarra y a Tracasa.

**5 – AURREKONTUAREN ALDAKETA. HASIERAKO ONESPENA (6/2018 ZK. ESPEDIENTEA)**

**5 - APROBACIÓN INICIAL DE LA MODIFICACIÓN DEL PRESUPUESTO (EXPEDIENTE Nº 6/2018)**

Uztailaren 3an kontu-hartzaileak eginiko txostenean, adierazten du beharrezkoa dela transferentzia bat egitea Udalaren 2018. urterako aurrekontuan.

Jasotzen du 33.792,37 €-tako hornidura kontusail batera. Berau, Montoia tunelaren zolaketa egiteko erabiliko da, Bidasoako bide berdean .

Aipaturiko txostenean adierazitakoa ikusita, eta kontuan hartuta Nafarroako Toki Administrazioko Foru-Legearen 271. artikuluan ezarritakoa (lege hori Nafarroako toki-araubidea eguneratzeko 11/2004 Foru-Legeak aldatu zuen),

En un informe emitido por el interventor con fecha 3 de julio, señala la necesidad de realizar una transferencia en el Presupuesto del Ayuntamiento para el año 2018.

Contempla la dotación de 33.792,37 € a una partida. La misma se destinará a la pavimentación del túnel de Montoia, en la vía verde del Bidasoa.

A la vista de lo señalado en el citado informe y teniendo en cuenta lo establecido por el artículo 271 de la Ley Foral de Administración Local de Navarra (modificada por la Ley Foral 11/2004, para la actualización del régimen local de

Udalbatzak, aho batez, honako hau erabaki du:

1.- Hasiera batean onestea aurrekontua aldatzeko 6/2018 espedientea.

2.- Espediente hori jendaurrean edukitzea hamabortz egun baliodunean, aldez aitzinetik Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Herriko Etxeko iragarki oholean, herritarrek edo interesdunek aztertu ahal dezaten eta egoki iruditzen zaizkien erreklamazioak egin ditzaten.

**6 – JOSÉ LUIS YANCI IRIGOYENEK ESKATUTAKO OIHAN APROBETXAMENDUAK**

2018ko maiatzaren 31an (1569. sarrera Udaleko Erregistro Orokorrean) eta ekainaren 1ean (1579. Sarrera Udaleko Erregistro Orokorrean) aurkezturiko eskaerak aztertuta, Osoko Bilkurak honako hau erabaki du aho batez:

1.- Nafarroako Gobernuko Oihanaren Kudeaketa Zerbitzuaren aitzinean tramitatzea Agustin Alzugaray Michelena jaunak eginiko eskaerak, honako aprobetxamendu hauek egiteko:

- Zuhaizti guztiaren matarrasa, Frain parajean (2. Finka). Moztu behar den azalera 16.104 $m^2$ –koa da. Katastroko 3. poligonoko 392 partzelako P azpipartzelari dagokio (Aprobetxamenduaren erreferentzia Oihapart/2018/24).

- Pinuren, platanondoen eta akazien matarrasa, Frain parajean (Alaranzasi finka 3). Moztu behar den azalera 114.909 $m^2$ –koa da. Katastroko 3 poligonoko 392 partzelako U eta T, eta P (zatia), azpipartzelei dagokio

Navarra), el Pleno acuerda por unanimidad:

1º) Aprobar inicialmente el expediente de modificación presupuestaria 6/2018.

2º) Someter el mismo a exposición pública, por periodo de quince días hábiles, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento, a fin de que los vecinos o interesados puedan examinarlo y formular las reclamaciones que estimen oportunas.

**6 - APROVECHAMIENTOS FORESTALES SOLICITADOS POR JOSÉ LUIS YANCI IRIGOYEN**

Examinadas las instancias presentadas con fecha 2 y 17 de julio de 2018 (entradas nº 1866, 1867, 1869, 1870, 1975, 1976 y 1977 en el Registro General del Ayuntamiento), el Pleno acuerda por unanimidad:

1º) Tramitar ante el Servicio de Gestión Forestal del Gobierno de Navarra las solicitudes formuladas por don José Luis Yanci Irigoyen, para realizar los siguientes aprovechamientos forestales:

- Matarrasa de todo el arbolado situado en una finca (Nº 2) del paraje de Frain. La superficie de corta es de 16.104 m.2. Corresponde a la subparcela P de la parcela 392 del polígono 3 del catastro (Referencia del aprovechamiento: Oihapart/2018/24).

- Matarrasa de pinos, plátanos y acacias en el paraje de Frain (Alaranzasi finca 3). La superficie de corta es de 114.909 m.2. Corresponde a la subparcela U y T, y parte de la P, de la parcela 392 del polígono 3 del catastro

(Aprobetxamenduaren erreferentzia Oihapart/2018/25).

- Pinuren, gaztainondoen, platanondoen eta akazien matarrasa, Frain parajean (Alaranzasi finka 4). Moztu behar den azalera 26.998 $m^2$ –koa da. Katastroko 3 poligonoko 373 partzelako B, K eta M (zatia) azpipartzelei eta 510, 511 eta 512 partzelei dagokio (Aprobetxamenduaren erreferentzia Oihapart/2018/26).

- Platanondoen eta akazien matarrasa, Frain parajean (Alaranberri finka 5). Moztu behar den azalera 41.350 $m^2$ –koa da. Katastroko 3 poligonoko 392 partzelako C eta P azpipartzelei, eta 389 eta 407 A partzelei dagokio (Aprobetxamenduaren erreferentzia Oihapart/2018/27).

- Gaztainondoen eta akazien matarrasa, Frain parajean (finka 6). Moztu behar den azalera 3.605 $m^2$ –koa da. Katastroko 3 poligonoko 373 partzelako L eta S azpipartzelei dagokio (Aprobetxamenduaren erreferentzia Oihapart/2018/28).

- Akazien, herriko haritzen eta bestelako hostozabalen matarrasa, Frain parajean (Lurrizti finka 7). Moztu behar den azalera 22.932 $m^2$ –koa da. Katastroko 3 poligonoko 392 partzelako P azpipartzelari dagokio (Aprobetxamenduaren erreferentzia Oihapart/2018/29).

- Akazien eta haritz amerikarren matarrasa, Frain parajean (finka 8). Moztu behar den azalera 6.738 $m^2$ –koa da. Katastroko 3

(Referencia del aprovechamiento: Oihapart/2018/25).

- Matarrasa de pinos, castaños, plátanos y acacias en el paraje de Frain (Alaranzasi finca 4). La superficie de corta es de 26.998 m.2. Corresponde a las subparcelas B,K y parte de la M, de la parcela 373 y a las 510,511 y 512, todas ellas del polígono 3 del catastro (Referencia del aprovechamiento: Oihapart/2018/26).

- Matarrasa de plátanos y acacias en el paraje de Frain (Alaranberri finca 5). La superficie de corta es de 41.350 m.2. Corresponde a las subparcelas C y P de la parcela 392 y a las 389 y 407 A, todas ellas del polígono 3 del catastro (Referencia del aprovechamiento: Oihapart/2018/27).

- Matarrasa de castaños y acacias en el paraje de Frain (finca 6). La superficie de corta es de 3.605 m.2. Corresponde a las subparcelas L y S de la parcela 373 del polígono 3 del catastro (Referencia del aprovechamiento: Oihapart/2018/28).

- Matarrasa de acacias, robles del país y otras frondosas en el paraje de Frain (Lurrizti finca 7). La superficie de corta es de 22.932 m.2. Corresponde a la subparcela P de la parcela 392 del polígono 3 del catastro (Referencia del aprovechamiento: Oihapart/2018/29).

- Matarrasa de acacias y robles americanos en el paraje de Frain (finca 8). La superficie de corta es de 6.738 m.2. Corresponde a

poligonoko 373 partzelako I azpipartzelari dagokio (Aprobetxamenduaren erreferentzia Oihapart/2018/30).

2.- Lanak hasi baino lehen horren berri eman beharko dio Udalari, eta baita aprobetxamendua amaitu baino lehen ere, hark egiaztatu ahal izateko nola gelditu diren erabili diren bideak.

Halaber, ezarritako fidantza jarri beharko du, eta horren zenbatekoa jakinaraziko zaio.

Bideak ezin izanen dira egoera txarrean utzi. Hori gertatuz gero, hamabortz eguneko epea emanen zaio haiek konpontzeko. Bertzela, Udalak berak moldatuko ditu, aprobetxamendua egin duten jabeen kontura.

Orokorrean, eguraldi euritsuarekin ezin izanen da egurrik garraiatu, baldin eta horretarako baimen espresa ematen ez bazaio.

3.- Eskatzaileari jakinaraztea, finkak komunal ageri direla udal katastroan, eta, ondorioz, erabaki honek ez duela deus adierazten lur-eremuaren jabetzari buruz.

**7 – JOSÉ MIGUEL RECONDO ANDUEZAK ESKATUTAKO OIHAN APROBETXAMENDUA**

2018ko uztailaren 19an aurkezturiko eskaera aztertuta (1997. sarrera Udaleko Erregistro Orokorrean), Osoko Bilkurak honako hau erabaki du aho batez:

1.- Nafarroako Gobernuko Oihanaren Kudeaketa Zerbitzuaren aitzinean tramitatzea José

la subparcela I de la parcela 373 del polígono 3 del catastro (Referencia del aprovechamiento: Oihapart/2018/30).

2º) Con carácter previo al comienzo de las labores de saca, deberá comunicárselo al Ayuntamiento y también antes de finalizar las mismas, a fin de que éste pueda comprobar el estado de los caminos utilizados.

Para ello tendrá que constituir la fianza establecida, cuyo importe le será comunicado.

Los caminos no podrán dejarse en malas condiciones. Si esto sucediera, se le dará un plazo de quince días para arreglarlos. En caso contrario, los reparará el Ayuntamiento, a cargo de los propietarios del aprovechamiento.

En general, no podrá transportarse madera con tiempo lluvioso, salvo que se le conceda una autorización expresa para ello.

3º) Comunicarle que las fincas figuran como comunales en el catastro municipal, por lo que este acuerdo no supone pronunciamiento alguno sobre la propiedad de las mismas.

**7 – APROVECHAMIENTO FORESTAL SOLICITADO POR JOSÉ MIGUEL RECONDO ANDUEZA.**

Examinada la instancia presentada con fecha 19 de julio de 2018 (entrada nº 1997 en el Registro General del Ayuntamiento), el Pleno acuerda por unanimidad:

1º) Tramitar ante el Servicio de Gestión Forestal del Gobierno de Navarra la solicitud

Miguel Recondo Andueza jaunak eginiko eskaera, 15 edo 20 arkazia botatzeko, erortzeko arriskuan daudenak, Eskolakoborda parajean. Katastroko honako lurzatiei dagokie: 3. poligonoko 306 partzelako A azpitzartzelaren zatia (Aprobetxamenduaren erreferentzia: Oihapart/2018/31).

formulada por don José Miguel Recondo Andueza para derribar 15 o 20 acacias que se encuentran en riesgo de caída en un finca situada en el paraje de Eskolaborda. Corresponde a parte de la subparcela A de la parcela 306 del polígono 3 del catastro (Referencia del aprovechamiento: Oihapart/2018/31).

2.- Lanak hasi baino lehen horren berri eman beharko dio Udalari, eta baita aprobetxamendua amaitu baino lehen ere, hark egiaztatu ahal izateko nola gelditu diren erabili diren bideak.

2º) Con carácter previo al comienzo de las labores de saca, deberá comunicárselo al Ayuntamiento y también antes de finalizar las mismas, a fin de que éste pueda comprobar el estado de los caminos utilizados.

Halaber, ezarritako fidantza jarri beharko du, eta horren zenbatekoa jakinaraziko zaio.

Para ello tendrá que constituir la fianza establecida, cuyo importe le será comunicado.

Bideak ezin izanen dira egoera txarrean utzi. Hori gertatuz gero, hamabortz eguneko epea emanen zaio haiek konpontzeko. Bertzela, Udalak berak moldatuko ditu, aprobetxamendua egin duten jabeen kontura.

Los caminos no podrán dejarse en malas condiciones. Si esto sucediera, se le dará un plazo de quince días para arreglarlos. En caso contrario, los reparará el Ayuntamiento, a cargo de los propietarios del aprovechamiento.

Orokorrean, eguraldi euritsuarekin ezin izanen da egurrik garraiatu, baldin eta horretarako baimen espresa ematen ez bazaio.

En general, no podrá transportarse madera con tiempo lluvioso, salvo que se le conceda una autorización expresa para ello.

3.- Eskatzaileari jakinaraztea finka hori komunal ageri dela udal katastroan, eta, ondorioz, erabaki honek ez duela deus adierazten lur-eremuaren jabetzari buruz.

3º) Comunicarle que las finca figura como comunal en el catastro municipal, por lo que este acuerdo no supone pronunciamiento alguno sobre la propiedad de la misma.

**8 - ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA**

**8 – CONOCIMIENTO DE LAS RESOLUCIONES DE LA ALCALDÍA**

Zinegotzi guziei pasatu zaie, posta elektronikoz, azken osoko bilkuratik gaur arte Alkatetzak emaniko ebazpenen zerrenda. Ez dutenei, aipatu zerrenda horren paperean

Se ha pasado a todos los concejales, mediante correo electrónico, la relación de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía desde la última sesión hasta el día de hoy. A los que no lo

inprimaturiko kopia bana utzi zaie, bakoitzari dagokion erretiluan.

Ondoren, eta Toki Erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Erregelamenduaren 91.4 artikuluak xedatutakoaren arabera, alkate jaunak galdetu du ea talde politikoren batek premiazko arrazoiak direla-eta Udalbatzak eztabaidatzea nahi duen aferarik ote duen, deialdiarekin batera zihoan gai-zerrendan ez zegoena eta "eskari-galderak" puntuan sartzerik ez duena.

Ez da inolako gairik planteatu.

**9 - OSOKO BILKURAKO KONTROL-JARDUERA. ESKARI-GALDERAK**

Ez da izan.

Aipaturiko eguneko ilunabarreko zortziak eta bederatzi minutu direnean, eta, eztabaidatzeko gai gehiago ez dagoenez, alkate jaunak akabatutzat eman du bilera. Nik, idazkariak, egiaztatu egiten dut.

tienen, se les deja una copia impresa en papel de la citada lista, en su respectiva bandeja.

Seguidamente y conforme a lo establecido por el artículo 91.4 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales, el señor alcalde pregunta si algún grupo político desea someter a la consideración del Pleno, por razones de urgencia, algún asunto no comprendido en el orden del día que acompañaba a la convocatoria y que no tenga cabida en el punto de ruegos y preguntas.

No se plantea cuestión alguna.

**9 – ACTIVIDAD DE CONTROL DEL PLENO. RUEGOS Y PREGUNTAS.**

No se formulan.

Siendo las veinte horas y nueve minutos del día de la fecha y no habiendo más asuntos que tratar, el señor alcalde da por finalizada la sesión. De todo ello yo, como secretario, certifico.